



FORU DEKRETUA

Nekazaritza Saila
Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua
Esp. zk.:

Onespena ematea mahasti zaharrak mantentzeko eta kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileei eta laguntza lerro horren 2018ko deialdiari.

“Zaharrak” deritzen mahastiak funtsezkoak dira Arabako Errioxako mahastien ekoizpenean; izan ere, neurri handi batean Errioxa jatorrizko deituraren gaineraketik bereizten dira. Mahasti zahar horiek balio natural eta produktibo handiko nekazaritza sistemak dira, eta eskualdean hamarkadetan oso bizirik egon den material genetikoaren gordelekua, gaitasun handia baitaukate baldintza natural eta klimatiko okerretara egokitzeko, horrek dakarren balio garrantzitsuarekin: Arabako etorkizuneko mahastiak mantendu eta garatzea erraztu eta bermatzea. Halaber, mahasti horiek, oro har, oso garrantzitsuak dira kalitate bereiziko ardoak egiteko orduan, landakoak, produktibitate gutxikoak eta aniztasun handikoak direlako; ondorioz aukera ona dira eta eskualdearen denboran eta espazioan horiei eustearen alde egin behar da.

Horren guztiorren ondorioz, laguntza lerro bat garatu beharra dago mahasti zahar horiei eta horrelako mahastien laborantzari eusteko, Arabako Errioxako paisaia tradizionalaren eta nekazaritza sistema horien oinarritzko osagai baitira, eta eskualdean ohikoa izan denez, kalitate goren eta bereiziko produkzioari eutsi eta hura garatzeko.

Beharizan hori betetzeko helburuarekin, foru dekretu bat onetsi behar da, non finkatuko diren helburu hori betetzeko ezarriko diren neurrien oinarri arautzaileak, Arabako Foru Aldundiaren eskumena izanik horien kudeaketa.

Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontuan bada partida bat, 275.000,00 eurokoa, laguntza lerro horretarako; hortaz, horren aurtengo deialdia onartu behar da.

Burutu dira Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak, zeinaren bidez onartzen baita xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu eta onetsi ondoren, hau

XEDATZEN DUT



Lehenengoa.- Onestea mahasti zaharrak kontserbatzeko laguntzaren oinarri arautzaileak, foru dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena.- Onestea mahasti zaharrak kontserbatzeko laguntzaren 2018ko deialdia, ezaugarri hauen arabera:

- Epea eta lekua: laguntza eskaerak aurkezteko epea 2018ko uztailaren 1etik 30era izango da, egun biak barne, eta Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuan egingo da (Lapuebla de Labarca errepidea, z.g. Guardia), kendu gabe urriaren leku 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa.
- Kreditu erreserba: 275.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastuen aurrekontuetako “Mahasti zaharren mantentze plana” izeneko 40.1.04.44.00.770.00.01.1 partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidari edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

- Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2018ko deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Hirugarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurso guztiak ebazteko.

Laugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz,

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

Eduardo Aguinaco López de Suso

Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Agricultura

M^a Asunción Quintana Uriarte

Nekazaritza zuzendaria
Directora de Agricultura



ERANSKINA

1. artikulua.- Xedea.

- 1.1 Foru dekretu honen xedea da mahasti zaharrak kontserbatzeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea Arabako Lurralde Historikoaren eremuan.
- 1.2 Laguntza erregimen horren helburua da mahasti zaharren mantentzea eta kontserbazioa sustatzea, lerro estrategiko hauen barruan:
 - a) Landa eta nekazaritza paisaiaren kontserbazioa, hobekuntza eta dibertsifikazioa bultzatzea, bereziki, Mahastiaren Paisaia Babestuarena eta Arabako Errioxako Mahastiena.
 - b) Nekazaritzako biodibertsitatea zaintzea Arabako Errioxako mahastietan.
 - d) Uraren eta lurraren kudeaketa hobetzea.
 - f) Kalitateko ekoizpenei eusten zaiela ahalbidetzea.

2. artikulua.- Onuradunen betekizunak.

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira hurrengo artikuluan finkatzen diren neurriaren betekizun orokorrak eta bereziak betetzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak:

2.1 Pertsona fisikoak:

- a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritzako ustiategi baten titularra izatea.
- b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.
- c) 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe izatea, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen den momentuan.
- d) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.
- f) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).
- g) Eskaera egitea, dekretu honetan jasotakoaren arabera.

2.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:



Ustiategi elkartuen kasuan, hala nola sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidego edo bestelako pertsona juridikoak:

- a) Eskatzaileak aurreko 2.1 artikularen a), d), e), f) eta g) letrek pertsona fisikoei ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 2.1.d) artikuluan ezarritako betekizuna bete beharko dute.

- b) Zerga egoitza eta egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan izatea.

Zerga egoitzaren ondorioetarako, betekizun hori bete dela ulertuko da zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dagoenean eta gutxienez bazkideen ehuneko 50ek Arabako Lurralde Historikoan zerga egoitza izateaz gain Araban kokatuta dagoen sozietate horretako kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza badute gutxienez.

- c) Ustiategiko kideek 18 urte beteta izan beharko dituzte eta 65 urte bete gabe, laguntza eskaera aurkezteko epea amaitzen denean. Betekizun hori betetzat joko da, zerga egoitzari buruz artikulua honen 2.2.b) letran zehaztutako irizpidea betetzeaz gain, baldin eta gutxienez bazkide guztien erdiek (ehuneko 50) sozietatearen kapitalaren gutxienerako ehuneko 50eko partaidetza izateko betekizuna betetzen badute.

- d) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.

- e) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibiso mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira.

- f) Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorriz titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiategiei sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

3. artikulua.- “Mahasti zaharrak kontserbatzea” neurriaren betekizun eta konpromiso espezifikoak.

Aurreko artikuluan jasotako betekizunez gain, hauek ere bete beharko ditu onuradunak:

- Mahastiak 1960koak edo zaharragoak izango dira eta Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egongo dira, eta gutxienez 5.000 m²-ko azalera hartuko dute.
- Araban kokatuta dauden mahasti guztiak Lurralde Historikoko Mahastizaintzaren Erregistroan eta Errioxa jatorrizko deitura kalifikatua inskribatuta egotea (betekizun hori baztertzailerak izango da laguntza osorako).
- Ez edukitzea mahasti ez produktiboak edo irregularrak.



Konpromiso hauek ere bete beharko ditu:

- Ustiatégian dauden “mahasti zahar” guztiak kontserbatzea baldintza egokietan, kasuan kasuko laborantza lanen bidez, hala nola mozketa bat gutxienez, eratze eta fruitutze egokia bermatzeko.
- Uztailaren 1etik azaroaren 1era bitartean, kaleetan landare di espontaneo edo landatutako landare estalkia mantentzea eta ez laboratu epe horretan. Gainerakoan, gehienez 20 cm sakonerako laborantza bat egin ahalko da. Ezin dira herbizidak erabili kaleetan, ez bada aldapa ehuneko 15 baino handiagoa dela.

4. artikulua.- Hartutako konpromisoetatik salbuesten duten ezinbesteko kasuak.

4.1 Onartuko da ustiatégia eskaera egiten denetik kasuan kasuko kontrolak egin bitartean eskualdatzea justifikatzen duten ezinbesteko kasuak edo salbuespeneko inguruabarrak daudela, kasu hauetan:

- a) Onuraduna hiltzea.
- b) Onuraduna lanbiderako luzaro ezinduta egotea.
- c) Ustiatégiko lurretan eragin handia izan duen hondamendi natural larria.
- d) Ustiatégiko eraikinak istripuz suntsitzea.
- e) Landare gaixotasuna, ustiatégiko mahasti guztietan edo batzuetan eragina duena.
- f) Ustiatégi osoa edo zati handi bat desjabetzea, baldin eta ezin izan bazen desjabetze hori aurreikusi konpromisoa hartu zen egunean.

4.2 Inguruabar horiek idatziz jakinarazi beharko zaizkio Nekazaritza Sailari. Idazkiarekin batera, harentzat nahikoak diren froga egokiak erantsi beharko dira, onuraduna edo eskubideduna hala egiteko egoeran dagoen egunetik aurrera hamar asteguneko epean.

4.3 Inguruabar horiek gertatzen direnean, ez da administrazio zehapenik ezarriko.

5. artikulua.- Kontrolak.

5.1 Onuradunek foru dekretu honetan eta beronen garapen arauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeke, Nekazaritza Sailak kasuan kasuko administrazio kontrolak eta lurraren gaineko kontrolak egingo ditu.

5.2 Onuradunak Arabako Foru Aldundiak ustiatégian agindutako ikuskapen bisita guztiak baimenduko ditu, eta laguntzaren gainean eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

6. artikulua.- Murrizketak eta zehapenak, adierazitako azalaren eta zehaztutako artean desadostasunik egonez gero.

Egindako kontroletan ez betetzerik atzemanaz gero, murrizketa, zehapen eta itzulketa hauek aplikatuko dira:



6.1 Zehaztutako azalera eskaeran adierazitakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, adierazitako azalera hartuko da aintzat, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

6.2 Adierazitako azalera zehaztutakoa baino handiagoa dela egiaztatzen denean, neurritz gaindiko adierazpena dagoela ulertuko da. Halakoetan, laguntza kontrolean zinez zehazten den azaleraren arabera kalkulatu da. Neurritz gain adierazitako kopurua kontuan hartuz, behar diren murrizketak eta zehapenak ezarriko dira. Neurritz gaindi adierazitakoaren ehunekoa formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{adierazitakoaren gaineko ehunekoa} = \frac{\text{adierazitako azalera} - \text{zehaztutako azalera}}{\text{zehaztutako zalera}} \times 100$$

6.3 Gerta daiteke zehaztutako azalera osoaren eta neurri baterako ordainketa eskaeran adierazitako azalera osoaren arteko aldea 0,01 hektareakoa edo handik beherakoa izatea; halakoetan, zehaztutako azalera eta adierazitakoa baliokidetzat joko dira.

6.4 Gerta daiteke adierazitako azaleraren eta zehaztutako azaleraren arteko aldea ehuneko 3tik edo bi hektareatik gorakoa izatea, baina zehaztutako azaleraren ehuneko 20koa edo handik beherakoa; halakoetan, laguntza kalkulatu da zehaztutako azaleran oinarri hartuz, baina egiaztatutako aldearen halako bi murriztuta.

6.5 Gerta daiteke aldea zehaztutako azaleraren ehuneko 20tik gorakoa izatea; halakoetan, ez da inolako laguntzarik emango azalerarengatik.

6.6 Kontroletan antzematen diren aldeak Mahastizaintzaren Erregistrora bidali beharko dira ofizioz, eta kasuan-kasuan aplikatuko dira EAEko mahastizaintza eta ardogintza antolatzeari buruzko 5/2004 Legean jasotako zehapenak.

6.7 Ezarritako zehapenak ez zaizkie aplikatuko laguntza edo ordainketa eskaeren zatiei, baldin eta onuradunak Nekazaritza Sailari idatziz jakinarazten badio eskaera ez dela zuzena edo zuzena izateari utzi diola eskaera aurkeztua izan ondoren; hori hala izango da, onuradunari jakinarazi ez bazaio agintaritza eskudunak lurrean bertan kontrola egiteko asmoa duenik eta agintaritza horrek ordurako adierazi ez badio laguntza edo ordainketa eskaeran ez betetzeak izan direnik.

6.8 Zehaztutako azalera egiaztatutako azalera ratioak mahastien adin talde bakoitzari aplikatuko zaizkie, eta ez mahasti zahar guztiari oro har.

7. artikulua.- Zehapenak, onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatik.

7.1 Eskatutako laguntza osorik ukatuko da baldin eta onargarritasun irizpideak ez badira ustiategi osoan betetzen.

7.2 Betekizunak ez badira betetzen eta horren ondorioz ordainketa eskaera ukatzen bada, ordura arte eskuratutako laguntzak Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko zaizkie, legez aplikatu beharreko interesekin batera.

8. artikulua.- Nahita egindako ez betetzeak.

Nahita egindako ez betetzat hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko



baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako abantaila lortze aldera. Kasu horietan, onuraduna zegokion laguntza jasotzetik baztertuko da; jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu, kasuan kasuko interesekin batera.

9. artikulua.- Murrizketen, zigorren eta ukoen ordena.

Ez betetzeek murrizketen, zehapenen eta ukoen metaketa eraginez gero, horiek guztiak modu mailakatuan aplikatuko dira aurreko zenbatekotik abiatuz eta honako ordena honen arabera:

- Neurritz gain adierazitakoarengatik egiten diren murrizketak eta zehapenak.
- Onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatik ukatzea.
- Laguntza kentzea onargarritasun irizpideak eta beste konpromiso edo betebeharrak ez betetzeagatik.

10. artikulua.- Laguntzaren kalkulua. Zenbatekoa

10.1 Laguntzak izango dira onuradunei ordaintzea prima bat Arabako Lurralde Historikoan kokatutako mahasti hektarea bakoitzeko, bideratuta izenpetutako konpromisotik eratortzen diren kostu gehigarriak eta sarrera galerak (lortu gabeko irabaziak) estaltzeko. Hauxe da zenbateko hori:

Landatze urtea:	Prima euro/ha
1930 aurrekoa	600
1931-1940	540
1941-1950	420
1951-1960	300

10.2 Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen gisako ustiategi elkartuei edo bestelako pertsona juridikoei dagokienez, gerta daiteke bazkide edo kide guztiek ez betetzea 2.1.b eta 2.1.c artikuluan egoitzaren eta adinaren inguruan ezarritako baldintzak; halakoetan, laguntza murriztuko da baldintzak betetzen ez dituztenen partaidetzaren proportzio baliokidean, behin 2.2.b eta 2.2.c artikuluan ezarritako ehuneko 50eko betekizunak egiaztatu ondoren.

11. artikulua.- Laguntza eskaerak.

11.1 Laguntza eskatzeko betekizunak, betekizun horiek egiaztatzeko modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, foru dekretu honetan ezartzen dira.

11.2 Eskaerekin batera, hurrengo artikuluan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

11.3 Laguntza eskaerak edo bestelako adierazpenak guztiz edo zatiz ken daitezke idatziz edozein momentutan. Nekazaritza Sailak onuradunari ez betetzeak daudela jakinarazi badio edo lurrian bertan kontrol bat egiteko asmoa duela ohartarazi badio edo lurrian bertan egindako kontrol batek ez betetzeren bat agerian jarri badu, ez da onartuko ez betetzeak ukitutako dokumentu horien zatiak



kentzea.

11.4 Onuradunak aurkeztutako laguntza eskaerak edota bestelako ziurtagiriak edozein momentutan zuzendu eta aldatu ahal izango dira ordainketaren aurretik, baldin eta Nekazaritza Sailak kasu zehatzaren ebaluazio orokorraren gainean onartutako ageriko akatsik badago eta onuradunak fede onez jardun badu.

12. artikulua.- Eskaeraren dokumentazioa.

Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak, horiek egoki zehazteko eska daitezkeen agiri osagarriez gain:

12.1 Oro har:

- Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta
- Eskaera aurkeztean Mahastizaintzaren Erregistroan inskribatutakoarekin bat ez badator, laguntza eskatzen den mahastien identifikazioa eta haiek landatutako dataren ziurtagiria.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

- Eskatzailearen adierazpena, non jasoko diren hauek:
 - Laguntza hura emateko baldintzak ezagutzen dituela.
 - Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez daukala eta horrelako legezko debekurik, sexu bereizkeriagatik debekuak barne, ez daukala, sexu bereizkeriagatik ezarritako debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

12.3 Eskatzailea pertsona juridikoa, sozietate zibila edo ondasunen erkidegoa bada, hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Nekazaritza ustiatetik kide guztien zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela ziurtatzen duen agiria, edo hori eskatzeko kasuan kasuko baimenak.
- Eratze estatutuen eta, egonez gero, horien aldaketen fotokopiak, Nekazaritza Ustiatetik Erregistroan sartu ahal izateko, baldin eta aurretik aurkeztu ez badira.

12.4 Foru Aldundiak beretzat gordetzen du betiere beharrezko deritzon dokumentazio osagarria dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.



12.5 Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea ezetsiko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

13. artikulua.- Izapidetzea.

13.1 Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak izapidetuko ditu.

13.2 Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

13.3 Aurrekontu zuzkidura nahikoa ez badago laguntzak eskuratu ahal izateko betekizunak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, denen artean hainbanatuko da eskuragarri dagoen zenbateko guztia.

13.4 Laguntza horiek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonak edo, beharrezkoa balitz, beraiek ordeztu dituztenek osatuko dute:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuko teknikari bat.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazioko kide anitzeko organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

14. artikulua.- Ebazpena eta jakinarazpena.

14.1 Kide anitzeko balorazio organoaren proposamenez, Arabako Foru Aldundiko organo egokiak ebatziko ditu espedienteak indarrean dagoen legeriari jarraiki, eta horien ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Dena dela, administrazioaren aurkako auzi errekurtoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurto mota hori arautzen duen araudiari jarraiki, aukerako berraztertze errekurtoa jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

14.2 Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori ofizioski luzatuko da hiru hilabetez, ez badira jaso kudeaketarako eta kontrolerako sistema integratuko gainerako neurrien ikuskapenen emaitzak. Epe hori igaro eta ebazpen adierazirik eman edo jakinarazi



ez bada, ulertuko da administrazio isiltasuna ezestekoa dela, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 23.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

14.3 Laguntzak emateko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa. Laguntza murriztu edo txikitzen bada edo ebazpen negatiboa badago, arrazoa zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, kopurua ere.

14.4 Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta bertan aurreko idatz zatian adierazitako informazioa jasoko du.

15. artikulua.- Laguntzen ordainketa.

Laguntzaren egiaztapen eta kontrol propio guztiak egindakoan, ordainketa egingo da.

Ordainketa egin ondoren jakiten bada laguntza ematean zeuden inguruabarrak aldatu direla, deialdiaren urtean beste neurri edo laguntza batzuen inguruan egindako kontrolen ondorioz, baldintzak betetzearen ondorioz, eta abar, ordainketa egokia birkalkulatuko da, zehazten diren baldintza berriekin bat etorritz. Kopuru hori ordaindutakoa baino txikiagoa bada, bien arteko aldea berreskuratu egingo da, hurrengo ordainketa eskaeran jaso beharreko zenbatekoetatik kenduz, egotekotan, edo itzulketa espediente baten bidez.

16. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Foru dekretu honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak bete beharko dituzte:

16.1 Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 egun balioduneko epean onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

16.2 Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

16.3 Laguntza zuzen eman dela egiaztatzeko, behar diren kontrol guztiak gainditzea.

17. artikulua.- Ebazpenaren aldaketa, ez betetzea eta itzulketa.

17.1 Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da.

17.2 Onuradunek betetzen ez badituzte foru dekretu honetan hartutako konpromisoak eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, xedatutakoaren arabera.

17.3. Diru zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.



17.4 Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, onuradunari entzun ondoren.

17.5 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, aurreikusitako arau hausteengatik.

18. artikulua.- Araubide juridikoa.

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudian ezarrita dagoena bete behar dute, bai eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

19. artikulua.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin.

Foru dekretu honetan garatutako laguntzak bateragarriak izango dira, gehienez 600 €/ha-raino, azpineurri hauen babesean eman daitezkeenekin: M10.1.1. “Produkzio integratua”, M11.1. “Nekazaritza ekologikora bihurtzea” eta M11.2. “Nekazaritza ekologikoari eustea”. Halaber, bateragarriak izango dira xede eta helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batek eman ditzakeen beste edozein laguntzarekin.

20. artikulua.- Laguntzen finantzaketa.

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta estatu mailako laguntzatzat joko dira.